

# EUSKARA EAĒko LANBIDE HEZIKETA PUBLIKOAN



## Edukien aurkibidea

0. Sarrera.....	3
1. Araudia.....	5
1.1. 4/2018 LHko legea.....	5
1.2. Lanbide Heziketako V. Plana (2019-2021).....	7
2. Gaur egungo egoera.....	8
2.1. Eskaintza (2021/22 ikasturtea).....	8
2.2. Matrikulazioa.....	8
2.3. Legedia.....	9
2.4. Eskoletako egoera.....	10
3. LAB sindikatutik proposatzen duguna.....	12
3.1. Funtzionamendua.....	12
3.2. Eskaintza.....	13



## 0. Sarrera

2012an Euskararen Aholku Batzordearen Batzordeak idatzitako Euskara Sustatzeko Ekintza Planean (ESEP) jasotzen zen Lanbide Heziketan zegoen gabezia euskarazko ikasketei dagokionez, baita matrikulazio baxua ere. Hori dela eta, ekintza batzuk proposatzen zituen:

- Euskarazko ikasketen eskaintza sendotzearen inguruan: "2.1. Lanbide Heziketan euskarazko eskaintza indartzea, horretarako irakasleen prestakuntza hobetuz eta ikasmaterialak eskainiz".
- Arlo sozioekonomikoa eta hezkuntza sistema ongi uztartzeari dagokionez:
  - "5.1. Lanbide Heziketako ikastetxeetan gero eta ziklo gehiago euskaraz egin ahal izateko aukera eskaintzeko neurriak hartzea, besteak beste irakasleen euskara-gaitasuna hobetuz eta ikasmateriala euskaraz ere jarriz eta sortuz.
  - 5.2. Lanbide Heziketako eta unibertsitateko ikasleek lan-mundura hurbiltzean egin ohi dituzten praktikak euskaraz ere egiteko aukera izan dezaten laguntza ematea".
- Eta irakaskuntza alorrean: "3.1. DBHn, Batxillergoan edo Lanbide Heziketan sartzearen dauden gazteengan eta senideengan eragitea, euskarazko eredueta ikasten jarraitzeak dakartzan abantailak azaltzeko."

Beste aldetik, Jaurlaritzak argitaraturiko "Euskara eremu sozioekonomikoan sustatzeko planean (2020-2023) ere jasotzen da: "Gazteen ezagutzaren gorakadaz hitz egitean, Administrazioetik hezkuntza sistema euskalduntzeko egindako apustu estrategikoaz hitz egin behar da ezinbestean. Izan ere, D ereduak nagusitzen ari da bai Derrigorrezko Hezkuntzan (% 67,3), bai Batxilergoan (% 63). Bestalde, Lanbide Heziketarena da hobetzeko gune nabarmenetako bat. Izan ere, D ereduak matrikulazioan duen nagusitasuna, ezabatu eta irauli egiten da Lanbide Heziketako matrikulazioan: D ereduak, % 19,9; B ereduak, % 13,9 eta A ereduak, % 66,3. Sakon aztertu behar litzateke lan mundurako sarbidea modurik zuzenenean lantzen duen ikasketa ereduak zergatik ez dion jarraitzen aurretik gero eta euskaldunago datozen belaunaldien hizkuntza ereduari (DBHn, % 67,3 D ereduari; LHn, % 19,9 D ereduari). Aintzat hartuz Lanbide Heziketako irakasleen % 68,3k daukala 2. HE, egingarria litzateke gaur egun Lanbide Heziketako euskarazko eskaintza handitzea".

Hala eta guztiz ere, plan horietan jasotako ekintzak benetako eginkizunak baino gehiago asmo hutsak izan dira, gaur egungo egoeraren analisisian agerian utziko dugunez.



## 1. Araudia

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lanbide Heziketan hizkuntzaren jokaera Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko 4/2018 ekainaren 28ko legeak arautzen du.

Lege honek hau dio sarreran:

*“Euskarak lanbide-heziketako sisteman duen presentzia normalizatua dela bermatu behar da”*

Baina bestetik hau dio:

*“hizkuntza-eredu bat edo bestea ezarriko da lanbide-heziketaren eta enpresa-munduaren berezitasunak eta eskakizunak kontuan hartuta”.*

Beraz, hemen dugu Lanbide Heziketa eta euskararen egoeraren sintesi nagusia: legezaturik dago eta baina oso era irekian non euskara zentroen eta enpresen eskaeraren esku lagatzen duen. Horrek Lanbide Heziketan euskararen eskaintzak izan ditzakeen aurrerapausoak kolokan utzi ditu; izan ere, zer eskatuko du zonalde erdaldun bateko enpresa-munduak? D eredia ezartzea? Ez, alegia.

Goazen aztertzerara legea:

### 1.1. 4/2018 LHko legea

Hauk dira Lanbide Heziketako legeak erkidegoko hizkuntza ofizialei buruz dioena:

*27. artikulua.– Prestakuntza-prozesuetako hizkuntza ofizialak.*

*1.– Egokiro bete dadin hezkuntza Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko eskubidea bai, halaber, lanbide- eta lan-jarduerak euskaraz egiteko eskubidea ere –biak ala biak berariaz aintzatetsiak indarrean den legedian–, bai euskara eta bai gaztelania ezinbestean jasoko dira lanbide-heziketa guztiko prestakuntza-programetan, ikasleek trebezia nahikoa garatu dezaten ahozko zein idatzizko ulermenean eta adierazpenean, betiere, arreta berezia jarrita dagokion arlo profesionalean. Halaber, bai Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren arloan eskumena duen sailak, bai Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak lanbide-heziketako ikastetxeetan euskara erabiltzea sustatuko dute, hots, euskara ohiko komunikazio-hizkuntza izatea, barneko zein kanpoko jardunean eta administrazio-jarduera eta -dokumentuetan.*

*2.– Lanbide-heziketako prestakuntza-programek bermatu egingo dute jarraipen egokia ematen zaiola bigarren hezkuntzan finkatutako hizkuntza-*



trataerari; hala, behar diren neurriak hartuko dira lanbide-heziketara igarotzean etenik gerta ez dadin aurreko etapetan egindako hizkuntza-aukerekiko. Ildo horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren arloan eskumena duen sailak bultzatuko du euskarazko hezkuntza-eskaintza lanbide-heziketan zabaltzea; hala, batetik, D eredua zabaltzea bultzatuko du, eta, bestetik, euskarazko ikaskuntza eta profesionalizazioa indartuko duen B eredua (elebiduna) ezarriko du arian-arian, planifikazio bati jarraituta. Era berean, A ereduan ere euskarazko ikasgaiak txertatzea bultzatuko du.

3.– Hizkuntza-plangintza orokorrarekin koordinatuta egingo da lanbide-heziketako hizkuntza-plangintza, eta, haren barruan, euskarazko lanbide-heziketa bermatuko da, kontuan hartuta, lehentasunez, honako hauek: zer-nolako eskaera eta errealtate linguistikoa dagoen dena delako ikastetxearen inguruko hezkuntza-etapa bakoitzean, zein den eremu horretako egoera linguistikoa eta, zehazki, zein diren ikastetxe horretan eskaintzen den lanbide-heziketaren berezitasunak eta helburuak.

4.– Lanbide-heziketaren hizkuntza-plangintzaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren arloan eskumena duen sailak behar diren neurriak hartuko ditu eskaintzen diren titulazio guztiak euskaraz irakasteko behar den eskola-materiala era dadin; era berean, behar diren neurriak hartuko ditu irakasleek, arian-arian, euskarazko irakaskuntza-eskariari erantzuteko euskara-gaitasun egokia eta nahikoa izan dezaten.

5.– Aurreko paragrafoan zehaztutako plangintzaren barruan, ikastetxe bakoitzak bere hizkuntza-ereduaren egitura zehaztuko du, plangintza orokorrera egokituta, eta kontuan hartuko du zer hizkuntza-proiektu duen, zer ingurutan dagoen kokatuta eta zer-nolako inguruabarrak dituen prestakuntza-prozesuaren xede den arlo profesional bakoitzak; era berean, aintzakotzat hartuko du hizkuntza biak komunikazio-hizkuntzat erabiltzea bide aproposa dela kasu bakoitzean egokiro bateratzeko elebitasunaren helburua eta kasuan kasuko prestakuntza-edukiak irakasteko helburua.

6.– Bai praktika-programetan bai lanbide-heziketa dualeko programetan, enpresetan edo antzeko zentroetan egiten diren praktikei eta prestakuntzari dagokienez (bai hasierako lanbide-heziketan bai enplegurako lanbide-heziketan), enpresaren hizkuntza-errealitatea hartuko da bereziki kontuan, programa horiek egokiro bateratu ahal izateko ikasleen hizkuntza-ereduarekin eta -eskariarekin.

7.– Enplegurako heziketako jardueren eta programen barruan, euskara ikasteko programak emango dira, HABErekin egindako akordioen bitartez, 129. zk. 2018ko uztailaren 5a, osteguna EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA 2018/3494 (33/23) ikasleek ahozko eta idatzizko komunikazio-gaitasunak garatu ditzaten dena delako arlo profesionalean, eta, hartara, lanbide-zereginak hobeto bete daitezen edo lanbide-aukerak hobetu daitezen.



8.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak beharrezkoak diren neurriak bultzatuko ditu lanbide-heziketako irakasleen euskara-gaitasuna hobetzeko.

### 1.2. Lanbide Heziketako V. Plana (2019-2021)

Lanbide Heziketan, 2018ko legeaz gainera, 2019ko otsailean Lanbide Heziketako V. Plana onartu zuen EAeko Hezkuntza Sailak. Planaren indarraldia 2021an amaitu da. Helburu bakarra du planak hizkuntzen inguruan:

*“Hainbat hizkuntzatan trebatzen irakasteko beharrezkoak diren hizkuntza-ezagutzak garatzea, ikasle eleaniztunak sortuz, enpresa-ehunean gaur egun dagoen eta etorkizunean egongo den nazioarteko eskaerari erantzuteko”*

Aipaturiko hainbat hizkuntza horien artean, gaztelania eta ingelesean trebatzen dira ikasleak. Beraz euskarak ez du lekurik plan honetan .



## 2. Gaur egungo egoera

Gaur eguneko egoera hurrengoa da: Lanbide Heziketa oro har gaztelaniaz irakasten da. Administrazioak dio euskarazko irakaskuntza % 37koa dela, baina ez digu matrikulazio daturik eman nahi.

### 2.1. Eskaintza (2021/22 ikasturtea)

Jokin Bildarratz Hezkuntza Sailburuak hainbeste gorai patzen duen Lanbide Heziketan bigarren mailako hizkuntza da euskara. Hori dela eta, euskaraz ikasteko eskubidea urratu egiten zaie herritarrei.

2021-2022 ikasturteko Lanbide Heziketako ziklo-eskaintza kopurua duzue beheko taulan, hizkuntza ereduak eta lurraldeka ezberdinduta.

	HIZKUNTZA EREDUAK														Hezik. Zikloak Guztira	%
	D	%	B	%	A	%	ABD	%	BD	%	AD	%	AB			
ARABA	3	3,29	0		46	50,5	35	38,4	1	1,09	6	6,59	0	91	100	
BIZKAIA	31	12,8			119	49,1	72	29,7			20	8,26		242	100	
GIPUZKOA	90	43,2	1	0,48	33	15,86	50	24,03			34	16,34		208	100	

LABek egindako taula

Datu hauek ikusita ondoriozta dezakegu DBHn eta Batxilergoan ikasleen gehiengoak ikasketak euskaraz egiten dituen arren, Lanbide Heziketan euskaraz ikasten jarraitzeko aukera erabat murriztu egiten zaiela.





### 2.2. Matrikulazioa

Bildu ditugun datuekin EAeko Lanbide Heziketa Publikoan eskaintzen diren eredu euskarazko matrikulazio-eskaintzaren taula osatu dugu:

HIZKUNTZA EREDUA	ARABA	%	GIPUZKOA	%	BIZKAIA	%	LANBIDE HEZIKETA PUBLIKOA EAE	%
D	463	%12,3	5014	%45,6	2067	%19,9	7544	%29,9
B+	1024	%27,1	1745	%15,9	2598	%25	5367	%21,4
A	2288	%60,6	4228	%38,5	5730	%55,1	12246	%48,7
GUZTIRA	3775	%100	10987	%100	10395	%100	25157	%100



## LHko matrikulazioa EAeko Hezkuntza Publikoan hizkuntz ereduaren arabera



### 2.3. Legedia

Legea ez da betetzen hurrengo artikuluetan:

#### 1. Artikulua.

Ikasle askok ezin dute euskaraz ikasi, bere famili profesionalean ez dagoelako eskaintzarik edo/eta ez da talderik irten, minimoa 12 ikasle baitira.

#### 2. Artikulua.

B eredua, B+ eredura aldatu dute eta honek esan nahi du taldearen erdiak gutxienez gaztelera hutsean egingo dituela ikasketak.





**3. Artikulua.**

Ez da bermatzen euskarazko lanbide-heziketa, askotan eskaintza ere ez baitago zentroetan.

**4. Artikulua.**

Material digitalak eta softwareak itzultzeko ez dago inolako laguntza edo planik.

**5. Artikulua.**

Ikastetxe askok bere hizkuntza-eredua zehazterakoan ez dute aintzat hartzen elebitasunaren helburua.

**7. Artikulua.**

Enplegurako heziketako jardueren eta programen barruan ez d a euskara ikasteko programarik ematen.

**8. Artikulua.**

2020-2021 urtean irakasleen euskara-gaitasuna hobetzeko programa bertan behera geratu da.

**2.4. Eskoletako egoera**

- ✚ B+ ereduak ematen da eskoletan, baina ez dago honen inguruko araudi idatzirik. Gainera, B+ ereduak ikasten duten ikasleek euskaraz ikasten dutela zenbatzen da, hori faltsua izanik, izan ere, ikasgaien % 50 inguru erdaraz irakasten baitira .

Eredu hau arautzen duen dokumentu eskuragarri bakarra IVAC-EEI-ko JIMV izeneko dokumentua da, non ageri den euskaraz emango diren orduak heziketa-ziklo bakoitzean.

Azken finean, B+ ereduak lortzen duena da ikasle euskaldunek ikasgai batzuk gazteleraz ikastea. Aldiz, ez du balio kontrako norabidean euskaraz ez dakiten ikasleek euskaraz ikasgaiak lantzeko.

- ✚ Eskoletan irakasle euskaldunak izatea da euskararen normalkuntzarako bidea. Ikastetxeetan irakasle ez-euskaldunak izateak eskaintza baldintzatu egiten du, A ereduak mantenduz, irakasleak desplazatuak izan ez daitezten. Hau guztia LPZ (RPT) bidez arautu liteke, sortutako plaza guztiei dagokien hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun data ezarritik.
- ✚ 2. hizkuntza-eskakizuna duten irakasleek ezin dute gaztelaniaz eskolarik eman; euskarazko orduak murriztuz gero desplazatuak izateko arriskua dago, nahiz



eta 2. HE ez duten irakasleek baino antzintasun handiagoa izan. Honek irakasle euskaldun asko 1. HE duten plazak edo hizkuntza-eskakizunik gabekoak hartzera bultzatzen ditu. Beharrezkoa den hizkuntza-eskakizuna duten irakasle asko baditugu ere, Hezkuntza Sailak ez du inolako apusturik egiten euskalduntzearen alde; eskoletako eskaintzak aztertzea besterik ez dugu.

- ✚ Eskoletako langile lanpostu askok ez dute hizkuntza-eskakizunik, eta, beraz, horrek eskoletako hizkuntza erabilera eta eskubideetan arrakala sortzen du, hainbat zerbitzu ezin baitira euskaraz eskaini, kasu batzuetan ikasleen harrera adibidez.
- ✚ LHko hainbat entitatek eskainitako kurtso edo transferentzia jardunaldi gehienak gazteleraz egiten dira.



### 3. LAB sindikatutik proposatzen duguna

LABek buruturiko barne-mailako hausnarketa prozesutik ateratako Euskal Eskola Publiko Komunitarioaren definizioan, Euskal Herrirako nahi dugun hezkuntza sistemaren oinarriak finkatu genituen, 0 urtetatik Batxiler eta Lanbide Heziketaraino. Dena den, azken etapa honen inguruan sakoneko hausnarketa batetik ateratako proposamen integrala egin behar dugulakoan gaude. Izan ere, bertan jaso genuen moduan, eredu neoliberal batek ezarritako lan merkatuaren beharren arabera diseinaturiko hezkuntza-zikloa baita lanbide heziketa gaur.

Euskarari dagokionez, txosten honetan EAEn dagoen egoera azaldu arren, ezin ahaztu askoz okerragoa dela Nafarroa Garaikoa, zeinetan LABek [argitaratu zituen](#) datuen arabera, 2021/22 ikasturterako soilik 22 ikastetxe publikok —eta 5 pribatuk— eskaintzen zuten lanbide heziketako ikasketak euskaraz egiteko aukera. Ipar Euskal Herrian, ez dago eskaintzarik, eta euskaraz ikasi nahi dutenek Hego Euskal Herrian ikasi behar dute.

Honako honetan, berriz, zikloaren beste arlotan eragin behar dela ahaztu gabe, ikasketak euskaraz egin ahal izateko behar diren proposamenetan zentratuko gara, oso nabaria baita ikasle euskaldunek jasaten duten eskubide-urraketa, eta ikasketen eskaintza euskaraz bermatzeko borondate falta. Era berean, esan bezala, EAErako proposamen bat da hemen planteatzen duguna. Erkidegoko Administrazioa “*lanbide-heziketaren eta enpresa-munduaren berezitasunak eta eskakizunen*” atzean ezkututzen da euskarazko eskaintza merkatuaren gora-beheren menpean uzteko, euskalduntzearen aldeko ahalegin sendorik gabe.

#### 3.1. Neurriak

- ✔ Lanpostu Zerrendak euskalduntzeko neurri zehatzak hartzea, ez utzi hauek matrikulazioaren menpe. Batetik, estabilizazio prozesuetan egun dauden lanpostuen hizkuntza-eskakizunen derrigortasun data ez dadila atzeratu. Eta bestetik, sortuko diren lanpostu berri guztien hizkuntza-eskakizuna 2. mailakoa izatea, hauek askoz jota 5 urteko epean derrigortasun data betez.
- ✔ 2. HE duten irakasleek hezkuntza-eskakizunik gabeko edo 1. HEko plazetan ere eskolak eman ahal izatea, pixkanaka eskolaz eskola LPZan plazak 2. HEkoak izateko plangintza bat eginez, denbora muga baten baitan.
- ✔ A ereduko eskaintzan euskarazko eskolak txertatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko 4/2018 Legeak dioen bezala.



- ✓ Enplegurako heziketako jarduera eta programatan euskarazko eskolak bermatzea.
- ✓ Software eta material-digitala euskarara itzultzeko programa eratzea.
- ✓ TKNIKA edo LHko beste entitateak emandako kurtso edo jardunaldi guztiak euskaraz bermatzea.

### 3.2. Eskaintza

- ✓ B+ ereduaren desagerpena eta D eredia bultzatzea, legeak dioen bezala, ikasle guztiak euskarazko gaitasunak lortze aldera.
- ✓ D ereduan aurre-matrikulatutako ikasle guztiei euskaraz ikasteko eskubidea bermatzea.

